

GIG 19

PALEOZENO/EOZENO MUGA

BALIO INTRINTSEKOA: 4

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,50

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Paleozoaren eta Eozenoaren arteko muga, duela 55,8 milioi urtekoa, Itzurun hondartzaren sarre-ran dago, zaldien eskulturarik gertu. Begiratu batean, unitate buztintsu gorrixka bat da, eta hura az-tertuz gero, oxigenoaren isotopoen eta karbonoaren isotopoen anomalia garrantzitsuak hautematen dira; aldaketa horiek atmosferara karbonoa isuri izanagatik gertatuko ziren, seguru asko.

Geoparkeko elementu geologikoen artean, PE muga eta KT muga dira garrantzitsuenetakoak na-zioartean. Atmosferara karbono ugari isurtzeak berotegi-efektu handia eragin zuen, bai eta Lurraren historiako berotze klimatikorik handienetako bat ere. Berotze horrek ondorio handiak izan zituen pla-netako banaketa biotikoan; izan ere, gerriko klimatikoak desplazatu egin ziren, eta ekosistemetako baldintzak izugarri aldatu ziren.

Zumaiako buztinetan argi hautematen denez, foraminifero bentoniko asko desagertu egin ziren bero-tze horren ondorioz, eta aldaketa handiak gertatu ziren planktonikoen banaketan. Eskualde kontinenta-letan, floraren eta faunaren aldaketa eta migrazio handiak ere eragin zituen berotzeak; ugaztunen al-daketak eta migrazioak, batik bat.

Zumaiako azaloramendua muga horren estratotipoa izateko proposatua izan zen 2004. urtean, bai-na azkenean ez zuten hala izendatu; dena den, nazioarteko erreferentziazko azaloramendua da gaur egun ere Paleozeno/Eozenoko Maximo Termikoa (PETM) aztertzeko. Gertaera hark eta gaur egungo berotze klimatikoak antzekotasun batzuk dituztenez, eta azaloramendua ikusteko oso ondo dagoe-nez, zientzialari pila bat joaten dira Itzurun ingurura urtero.

NOLA BERTARATU

Zumaiako herrigunetik oinez joan behar da Itzurun hondartzaren sarreraraino.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Paleozoaren eta Eozenoaren arteko mugaren kokapena.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 560033 m / Y= 4794413 m / Alt.= 18 m



Anomalia isotopikoak eta biotikoak hobekien erakusten dituen zati buztintsua, gertutik ikusita.